

• **Esamolde batzuk:**

<b>(-ren) bila ibili:</b>	amaren bila dabil etxe bila gabiltza	- amaren bila zebilen - etxe bila genbiltzan
<b>funtzionatu:</b>	kutxazaina badabil makina hau ez dabil	- kutxazaina bazebilen - makina hura ez zebilen

**Gogoratu:**

nenbilen	= andaba (en aquel momento)
ibiltzen nintzen	= andaba, solia andar
nindoan	= iba (en aquel momento)
jcaten nintzen	= iba, solia ir
nentorren	= venia (en aquel momento)
etortzen nintzen	= venia, solia venir

## ARIKETAK

1. Aditz-forma guztiak ondo ikasteko, pasa **iraganera** ondoko esaldiak :

1. Ba al dabil inor kalean? → Ba al zebilen inor kalean?
2. Ez dabilta pozik.
3. Batetik bestera zabilta, ero moduan.
4. Estu eta larri nabil, lana amaitu ezinik.
5. Beti berdin gabiltza.
6. Zergatik zabilzate bazterrak zikintzen?
7. Erloju hori ez dabil ondo.
8. Zeren bila dabilta horiek hemen?
9. Lantegira noa, lana eskatzera.
10. Nora zoazte horren presaka?
11. Horrela ez goaz inora.
12. Trena bete-betea doa.
13. Udaberria izan arren, berokia eta guzti doaz haurrak.
14. Ez al zoaz azkarregi?
15. Gure herrikoak azkenak doaz.
16. Nor doa aurrena?
17. Herrenka dator gaixoa.
18. Zer dela-eta zatozte horren serio?
19. Ezertarako gogorik gabe gatoz.
20. Haurrak beren gurasoekin datoz
21. Azokatik al zatoz?
22. Zuregana nator.
23. Aspalditik datorren kontua da hori.
24. Ibaiko urak zikinak datoz.

2. Bete itzazu hutsuneak **ibili, joan eta etorri** aditzen iragana erabiliz (gogoan izan batzuek **-en, -ela, -enean, -elako** edo horrelako atzizkiren bat daramatela):

• IBILI

1. Ezin da beti ibili gu orduan ... bezala.
2. Nor zen zure etxearen aurrean ... mutila?
3. Eskolan ... , orain baino lasaiago bizi nintzen.
4. Operatu aurretik herrenka ... ; orain ondo dabil.
5. Lehen estu samar ... ; orain ez dute ezeren faltarik.
6. Adizu, Jose Manuel, zer ... gaur goizean tabernaz taberna?
7. Nor ... lehen ate joka?
8. Besteak ez dakit, baina zuek behintzat ez ... oso txukun.
9. Txalupak ez ziren itsasora atera haize handiegia ... .
10. Ni jaitsi nintzenean, jende asko ... kalean.

• JOAN

11. Ez al duzu ezagutu Andoniren autoan ... neska?
12. Atea irekitzera ... konturatu naiz etxean utzi ditudala giltzak.
13. Pailazoz jantzita ... bostgarren kurtsoak ziren.
14. Erosketak egitera ... izan genuen istripua.
15. Ziabogan Orio ... aurrena, baina azkenean Zierbenak irabazi zuen.
16. Hasieran batera ... denak, baina berehala sakabanatu zarete.
17. Zein ziren zuekin ... lagunak?
18. Hasieran zu ... aurrena, baina helmugara azkena iritsi zara.
19. Azkarregi ... eman diote multa.
20. Beteegia zegoen trena; horregatik ... horren mantso.

• ETORRI

21. Orain garbiago dator, baina goizean zikin-zikina ... ura.
22. Garaiz ... , baina manifestazioa zegoen kalean eta horregatik iritsi naiz berandu.
23. Jendea beldurak zegoen, bete-beteak bait ... ibaiak.
24. Lanetik ... , ez al duzu inor ikusi geltokian?
25. Adizu, nondik ... lehen horren nekatuta?
26. Bestetan ez bezala, gaur hutsik ... trena.
27. Etxera ... , zure haurrak ikusi ditugu kalean jolasten.
28. Itsasoa harro zegoen; gero eta olatu handiagoak ... hondartzara.
29. Ba ... udaberria; lehen loreak agertzen hasiak ziren.
30. Ekonomia gero eta okerrago zegoen : ez ... gauza onik.

3. Itzuli euskarara ondoko esaldiak:

1. Estaban buscando agua y encontraron petróleo.
2. El chico que andaba con Ane ahora sale con Amaia.
3. Cuando ha pasado la policía, ibas por la mitad de la calle.
4. Dijeron que venía mal tiempo, pero no acertaron
5. Venían a donde tí, pero les he mandado a donde Koldo.
6. ¿Qué andabas buscando en mi armario?
7. Yo venía con la idea de ir al cine; pero si no puedes, nos quedaremos en casa.
8. ¿Quién era la que iba contigo?
9. ¿Por qué venías tan apurado?
10. Ibamos todos juntos, pero tu amiga se quedó atrás con Iñaki.
11. Andábamos buscándote y por fin te hemos encontrado.
12. Iba a coger tu coche, pero me he dado cuenta de que tiene una rueda pinchada.
13. ¿A dónde ibais esta mañana? ¿Qué andabais buscando?
14. Los jóvenes iban delante, los viejos venían más atrás.
15. Algo funcionaba mal.
16. Habían pasado un día fenomenal, pero venían cansadas.
17. Iban corriendo porque era tarde.
18. Aquel día no andaban los trenes.
19. ¿De dónde venía tanta gente?
20. Los más atrevidos iban delante, los demás íbamos detrás.
21. No sé qué pasó, pero el agua venía muy sucia.
22. El teléfono andaba cada vez peor.
23. Los que andaban contigo no eran de aquí.
24. El que iba con Marta era mi amigo.
25. No sé por qué, pero aquello no funcionaba.



## Testuak lantzen

### **1** Bete itzazu testu honetako hutsuneak, *ibili, joan* edo *etorri* aditzak erabiliz:

Oso goiz joaten naiz egunero lanera. Atzo etxetik irten nintzenean, ez ... inor kalean. Ilun zegoen eta ez zen ezer ikusten. Entzun, berriz, nire pausuen hotsa besterik ez zen entzuten. Halako batean, kalearen beste aldera pasatzera ... , itzal bat ikusi nuen etxe batetik irteten. Gizonezko bat zen. Nere atzetik abiatu zen. Nik, bada ezpada ere, arindu egin nuen pausua. Alferrik. Atzetik ... gizona. Korrika hasi nintzen. Atzera begiratu nuen eta hura ere korrika ... ikusi nuen. Beldurtzen hasi nintzen. "Lagunen bat ote da?", pentsatu nuen. Kale ilunetan zehar ... eta nire barrua ez zegoen lasai.

Iritsi nintzen noizpait lantegiko atera. Nire ondotik iritsi zen gizon hura ere. Hurbildu zenean ezagutu nuen : lantegiko nagusia zen. Arnas estuka ... . Beti aurrena izatea gustatzen zaio eta ez zuen ni baino beranduago iritsi nahi.



### **2** Irakurgaia .

#### **KUTXAZAINA EZ ZEBILEN !**

Lagunekin afarria izan zuen Xabierrek joan den ostiralean; ez zen, ordea, pozik ibili. Irteteko jazten ari zenean, karteran dirurik ez zuela konturatu zen. Kajoian begiratu zuen, baina alferrik : han ere ez zegoen dirurik. "Hau suerte txarra —pentsatu zuen—. Aurrezki Kutxara joan beharko dut, kutxazainetik dirua hartzera".

Lasterka joan zen Kutxaren bulegora. Berandu zebilen eta urduri zegoen. Azkar-azkar eman zien botoi guztiei eta ezer ez : handik ez zen dirurik irteten. Hura martxa! Gehien behar zuenean, hondatua zegoen kutxazaina. Beste saio bat egin zuen, baina alferrik : kutxazaina ez zebilen! Azkenean, etsita, lagunengana joan zen, dirurik gabe. "Lagunei eskatu beharko diet diru pixka bat —pentsatu zuen—. Hainbeste egingo didate, noski...".

Eta horrelaxe izan zen, jakina. Maritxuk utzi zion dirua eta horrela pasatu zuen gaua. Amorratuta zegoen, hori bai. Gehien behar denean, kutxazainak huts egin..., beti berdin!

Hurrengo goizean, egunkaria hartu eta honako berri hau irakurri zuen lehen orrian :

## LAPURRETAK KUTXAZAINETAN

Lapurreta-sistema erraza eta 'garbia' asmatu berri dute Donostian. Kutxazain automatikoetara joaten dira lapurrak, bulegoa itxita dagoenean. Diruaren irteerazuloa silikonaz tapatzen dute txukun-txukun eta bazter batean ezkututzen dira gero. Bezeroa etortzen denean, dirua eskatzen du eta zain geratzen da. Makinak egiten ditu eragiketa guztiak eta zulorantz bidaltzen du dirua, baina hau ez da kanpo-

ra irteten. Bezeroa haserretu egiten da, noski, eta berriro ematen die botoiei. baina alferrik; handik ez da dirurik ateratzen. Biz-pahiru saio egin ondoren, haserre joaten da, etsita, bere artean marmarrean: "Nork asmatu ote zituen makina zahar hauek?".

Orduan, lapurrak etorri, silikona kendu eta diru guztia hartzen dute lasai-lasai...

—Arraioa! —zutitu zen salto batean Xabier—. Horixe gertatu zitzaidan atzo. Ederra egin didate! Galdu dut dirua... Bueno —esan zuen gero, bere burua kontsolatu nahian—, asko-asko ere ez nuen eskatu eta gaitz erdi.

kutxazain (automatikoa): *cajero (automático)*

eragiketa: *operación*

→ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak :

lehengo	presaka	proba	beharrezkoen denean
atera	gorde	gustora	laster-laster

→ b. Erantzun :

1. Bulegoak itxita bazeuden, nondik atera behar zuen Xabierrek dirua?
2. Dirurik ateratzen ez zela ikusita, berehala etsi al zuen Xabierrek?
3. Noiz hondatzen omen dira beti gauzak?
4. Noiz konturatu zen Xabier zer gertatu zen kutxazainean?
5. Edozein ordutan egiten al dute lapurreta hori?
6. Zergatik ez da dirua kanpora irteten?
7. Kutxak dirua itzuliko diola uste al du Xabierrek?
8. Kutxan zuen diru guztia eskatu al zion makinari?
9. Dirurik gabe pasatu al zuen gaua?
10. Egia al da kutxazaina ez zebilela?

→ c. Pentsa ezazu zu zarela Xabier. Idatzi gutun edo eskutitz labur bat bulegoko zuzendariari, zer gertatu zaizun esanaz eta galdu duzun dirua eskatuz :

- zer gertatu zaizun
- zenbat diru eskatu zenuen
- zer irakurri duzun egunkarian
- dirua eskatu...

### GORDE ONDO NIRE DIRUA

Fermin zaharrari ez zioten hain erraz lapurtuko dirua. Hura ez zen gaurko sistema berriekin fidatzen. Kutxazainetan ibili hura? Bai zera! Hori baino seguruago nahi zuen hark dirua. Kezkatzen hasia zen, ordea, hura ere. Izan ere, telebistak behin eta berriz esaten zuenez, gaizki zihoazen gauzak; ekonomia txarto zebilen, krisialdi latza omen zetorren...

Egun batean Kutxara joan zen.

—Egun on —esan zion enplegatuari, kartila luzatuz—. Nire dirua, mesedez.

Enplegatuak kartila hartu, diru kopurua ikusi eta harrituta begiratu zion Fermi-  
mini.

—Baina..., diru guztia nahi al duzu?

—Bai, bai; atera dena, mesedez.

—Diru asko da, ordea...

—Asko da bai, eta? —haserretzen hasia zen Fermin.

—Zaude, zaude pixka batean. Oraintxe emango dizut.

Kartila hartu eta zuzendariarengana joan zen enplegatuak. Hau ere harritu egin zen Ferminek diru hura guztia atera nahi zuela entzun zuenean. Atera zen Fermi-  
nengana eta galdera bera egin zion :

—Seguru al zaude, Fermin, diru guztia behar duzula?

—Esan dut lehenago ere. Dena nahi dut!

—Baina...

—Zer baina eta baina, gero? Ez al da, bada, nirea?

—Bai, baina hainbeste ateratzea, alegia...

—Adizu, adiskidea —benetan haserre zen Fermin—. Aspertu naiz oraintxe.  
Atera dirua eta kopla gutxi niri.

Atzean zain zegoen jendea marmarka hasi zen. Gauzak okerrera jo baino lehen, bere bulegora pasatzeko esan zion zuzendariak Fermi-  
ni, han emango ziola dirua. Sartu ziren, bada, eta berehala egin zituzten hango kontuak. Aulki batean eser-  
rarazi zuen Fermin eta diruaren bila joan zen zuzendaria. Berehalaxe zen bueltan. Mahai gainean utzi zuen dirua. Zortzi bat miloi pezeta ziren berrehun milako pake-  
tetxotan. Ferminek betaurrekoak jantzi zituen eta pakete guztiak banan-banan kon-  
tatzen hasi zen. Arnaitu zuenean, irribarre egin zuen lasai; ondo zegoen dena, ez zen ezer falta...

—Ederki —esan zion pozik zuzendariari—, ikusten dut hemen daukazuela *nire*  
diru guztia. Sartu berriz barrura eta segi aurrerantzean ere horrela gordetzen.





→ Erantzun:

1. Zergatik zegoen kezkatua Fermin?
2. Zer dela-eta harritu zen enplegatua?
3. Leihatilan eman al zioten dirua Fermini?
4. Zenbat diru zegoen pakete bakoitzean?
5. Noiz lasaitu zen Fermin?
6. Zenbat diru eraman zuen etxera?



### I.3. NENGOELA(RIK)

- Badakizu **-ela** atzizkia ipintzen zaiola batzutan aditzari, subordinazio sustantiborik ez dagoenean ere. *Cuando, mientras* edo gaztelaniazko *gerundio* aren pareko esanahia du horrek batzuetan.

Adibidez:      Etxean nengoela sartu ziren lapurrak  
                            ➡      (Estando yo en casa entraron los ladrones)

Lanera nindoala, zure anaia ikusi nuen  
                            (Cuando iba al trabajo, vi a tu hermano)

Horrelakoetan berdin da **-elarik** ipintzea :

Etxean nengoelarik sartu ziren lapurrak  
Lanera nindoalarik, zure anaia ikusi nuen

- **-ela** daraman esaldia galdegaia da batzuetan, baina ez beti :

**Etxean nengoela** sartu ziren lapurrak - **noiz** sartu ziren?

Lanera nindoala, **zure anaia** ikusi nuen - **nor** ikusi nuen?

- Atzizki hau oso erabilia da kontakizun edo narrazioetan :

*Gaur goizean autobusaren zain nengoela, bi edo hiru autobus pasatu dira gelditu gabe. Bete-beteak zihoazen denak. Halako batean, aspertzen hasia nintzela, horra non ikusten dudan zure anaia kotxe berrian...*

